

PRESTAKUNTZA ARLOA:	Administrazioko oinarrizko gaiak
MODALITATEA:	Lineakoa
HIZKUNTZA:	Gaztelania

PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO SANCIONADOR EN LA LEY 39/2015

KODEA

2019-0-9-2

INFORMAZIO OROKORRA

IRAUPENA 20 ordu **IKASLE KOPURUA** 25 **IKASTARORAKO SARBIDEA** <http://autoprestakuntza.euskadi.eus>

HARTZAILEAK Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten enplegatu publikoak zuzenbidean lizentziatutako teknikariak eta administrazioetako letratuak, nagusiki administrazio-espedituek bideratzen eta ebazten dihardutenak.

BALDINTZAK -Helbide elektronikoa bakarrik ikasle bakoitzeko
- korporazio-saretik kanpoko posta-zerbitzarietatik eta zerbitzarietara mezuak bidaltzeko eta jasotzeko aukera ematen duen posta elektronikoko kontua izatea. Ez dute balioko mezuak korporazio-sarearen barruan bidali eta jasotzeko aukera besterik ematen ez dutenak

ESKAKIZUN TEKNIKOAK SOFTWAREA:

- Windows XP edo berriagoa
- Nabigatzaileak: Internet Explorer 8, Mozilla Firefox edo Chrome eguneratuak
- Pantailaren bereizmena: 1024 x 768 (gomendatua)
- Adobe Flash Player 10 edo berriagoa
- Acrobat reader 8 edo berriagoa (gomendatua)
- Interneterako konexioa eta Youtube zerbitzuko atzipena zabalik

HARDWAREA:

- PC Pentium III edo berriagoa
- Soinu-txartela
- Entzungailuak edo bozgorailu independientek

TUTORETZA Tutorearen egitekoak:

- Ikasleei plataforman ongi-etorria emateko mezu bat bidaltzea.
- Kontsultei erantzutea:
 - ikastaroaren edukiari buruzkoak, plataformako foroaren bidez
 - 24 orduko epean erantzutea
- Ikaskuntzaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

HILA	HASIERA	AMAIERA	ADMINISTRAZIO OROKORRA		BESTE ADMINISTRAZIO BATZUK	BAJEN JAKINARAZPENAK (ez dakar matrikula-kosturik)
			ESKATZEKO AZKEN EGUNA	ONIRITZIA	ESKATZEKO AZKEN EGUNA	
MARTXOA	Martxoaren 4a	Martxoaren 29a	Otsailaren 4a	Otsailaren 5etik 8ra	Otsailaren 8a	Martxoaren 1a arte

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK Aztertzea Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko 39. Legean oinarritutako administrazio-prozedura zehatzailearen ezaugarri nagusiak eta garapenerako araudi sektoriala.

GAITASUNAK Ikaslea gai izango da prestakuntza-ekintza amaitzean:

- Ulertzea Administrazioko Zigor Zuzenbidearen printzipioak eta baita zigortzeko ahalmena

PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

METODOLOGIA Autoprestakuntzako ekintza honek bi ardatz nagusi ditu: plataforma birtuala eta tutoretzak. Ikaskuntzaren oinarrian, sistema dinamiko bat dago, ikasleek aktiboki parte har dezaten; tutoreak gidatzen du ikaslea, eta ikasleak, berriz, banakako lana eginez eta elkarlanean arituz ikasten du. Ikastaroak 7 gai ditu, ikas materiala eta jarduera desberdinak ikasgai bakoitzeko. Ikasleak edukiak landu beharko ditu eta irakasleak

PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO SANCIONADOR EN LA LEY 39/2015

sortuko dituen eztabaida-foroetan parte hartu.

PROGRAMA	<ol style="list-style-type: none"> 1. Legezketasun-printzipioa Administrazio-prozedura zehatzailean 2. Erantzukizun-printzipioa 3. Proporzionaltasun-printzipioa 4. Non bis in idem printzipioa 5. Administrazio-prozedura zehatzailea 39/2015 Legean 6. Administrazio-erantzukizunetik libre uzteko bideak 7. Administrazio-prozedura zehatzailearen berezitasunak autonomia-erkidegoetan, bereziki Euskal Autonomia Erkidegokoan
EBALUAZIOA	<p>1.U. Prozedura zehatzailea 2.U. Alderdiak: ustezko erantzulearen eskubideak 3.U. Prozeduraren faseak 4.U. Betearaztea eta baliabideak</p> <p>Ikastaroaren helburuak betetzen direla bermatzea izango da ebaluazioaren helburua. Jarduera batzuk on-line egin behar dira eta beste batzuk ordenagailuan gero plataforma birtualean atxikitzeko, tutoreak zuzendu eta lanaren feedback-a bidali dezan. Halaber, edukiak ikasteko eta jarduerak egiteko gomendatutako epeak markatuko ditu. Ikastaroaren ebaluazioak 2 ariketa praktiko ditu, eta test motako online proba bat ikasgai bakoitzeko. Test bakoitzak 10 galdera izango ditu alde aurretik ezarritako epean egin beharrekoa.</p>
IKASTAROAREN BALORAZIOA	<p>Ikasleen gogobetetze-inkesta eta Irakaslearen balorazio-inkesta. Posta elektronikoen bidez, inkestaren lotura jasoko duzu, bete dezazun.</p>
ZIURTAGIRIA	<p>Aprobetxamendu-egiaztagiria lortzeko <u>bete beharreko baldintzak</u>:</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Gutxienez 3 test gainditzea: 5 erantzun zuzen proba bakoitzean ➤ Ikastaroko 2 ariketa praktikoak gainditzea <p>Ziurtagiri digitala eskuragarri izango duzu posta elektronikoen jakinarazpena jasotakoan. Sartu "IVAPekiko izapideak", "Ziurtatzeak" atalean.</p>
PREZIOA	<p>137€ AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.(Abenduaren 30eko EHAA, 248. zk.)</p>
LAGUNTZA	<p><u>Laguntza teknikoa</u> behar izanez gero:</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Deitu CAUko telefono zenbakira (945016) 440 ➤ Astelehenetik ostiralera 08:00etatik 20:00etara <p><u>Aministrazio-gaiekin</u> lotutako kontsultak egiteko: prestakuntza@ivap.eus</p>